

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Durandegi Lazkano

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako Pagola Azpi baserrian jaioa, Ibaeta eta Añorga artean. Aita bertakoa zuen; ama, berriz, Ibarakoa. Bost senide ziren. San Martin azokara joaten ziren tratuarekin. 14 urte arte Heriz pasealekura joan zen eskolara, maristengana, eta gero akademietan ibili zen ikasten, iluntzeetan. 17 urterekin harakin ikasten hasi zen, San Martin azokan. Soldadutzatik bueltan, Michelin gurpil lantegiko harategian hasi zen lanean (ekonomatoan), eta gero lantegian bertan, erretiroa hartu arte. 1969an baserria erortzen hasi zen, errepide berriko lanengatik; Pagola Berri eraiki zuten, eta hantxe bizi dira. Pepi Añorga aietearrarekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba dituzte.

Zintak

DON-086

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-24
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze - Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Inguruko baserriak eta etxeak

- **Erref:** DON-086/002
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Pagolazpi eta Pagolagain. Inguruko baserriak. Gorga erreka. Tranbia. Belen eta Infernua. Gerra denboran kartzela bihurtu zuten etxe bat, Ondarretan kabitzen ez zirenentzat. Kaminerak.</p>

2. Aita donostiarra, ama Ibarakoa

- **Erref:** DON-086/004
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:04:46. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Aita Pagolazpi baserrikoa zen, eta baita bere aurrekoak ere. XVI. mendeko dokumentu batean agertzen da Durandegi abizena. Ama Ibarakoa zuen, baserritarra hura ere. Kaletarrak ez ziren inoiz baserritar bihurtzen, bizimodu gogorra zelako.

3. Bizimodua ateratzeko, esnea eta tratua

- **Erref:** DON-086/005
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:10:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Lau-bost behi zituzten, zaldiren bat... Ez zuten lur asko, baina baratzetik ateratzen zuten bizimodua. Esnea eta tratua. Baratzetan zer zuten. Zaldi-karroarekin joaten ziren, San Martin azokara. Orduko merkatuak. Esnea etxez etxe partitzen zuten, eta igogailurik ez zegoen.

4. Feriara Hernanira, autobusez edo zaldi-karroan

- **Erref:** DON-086/007
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Feriara autobusez joaten ziren Igaratik Hernanira, ostegunetan. Baserritarrek joaten ziren. Zesterak autobus gainean. Zaldi-karroan ere joaten ziren, landareak erosi behar zirenean.</p>

Transkripzioa

- Ba, autobus bat ateatzen zan hemen Igarako inguru... auzoko Igaratikan ateatzen zan autobus bat. Autobus berezi xamarra. Baserritarrek bakarrik

ibiltzen zittun autobus bat zan. Eta ostegunetan, feria Hernania juten zan. Eta hemen etxetikan gertu Inpernu edo deitzen genion etxe ondo hortan gelditzen zan, eta jun-etorriya, ba, autobus horretan iten zan.

- Eta baiña han zerbait erosi ezkerro autobusian ekartzeko geizki ez?

- Ez. Esan dizut /esateizut/ baserritarra... xexterak edo deitzen zioten zea... ontzi handi batzuk ibiltzen zitun gaiñian, eta eskaillera bat zeukan atzian o saihtzian. ta handik iyo gora ta handik jaitsi. Azkenian, ba, bueno zekor bat edo txerri bat erosten ez bazenun behintzat, ba, autobusakin moldatzen ziñan edo bestela, bueno ba, zaldi-karrua. Horrekin jun-etorriya ta ez dakit ba landare... aldatzeko landaria behar zanian edo ez dakit ba... tomate edo porru edo holako gauzak bihar zianian, ba, bueno... zaldi-karruan bertan ere bai. Segun ze epoka, ze giro itten zun, ze egokitzen zan.

5. Umetako jolasak, bainuak eta arrantza

- **Erref:** DON-086/009
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Umetako jolasak, auzoko umeekin. Gordeketan, pilotan... zuhaitzetan igo. Neska-mutilak elkarrekin aritzen ziren. Futbolean errepidean ibiltzen ziren, orduan kotxe gutxi zebilen. Gorga errekan bainatzen ziren, putzu zuloetan. Aingirak tenedoreekin harrapatzen zituzten. Añorga.</p>

Transkripzioa

- Ba gu... jolasak izaten zian auzoko gure adiñeko mutil koskor eta neska koskorraikin. Eta bueno, asko ez zeon /etzeon/ e! Saltuan eta gordeketan eta pareten bat hola ta pelota ta harrapatuz geo pelota pixkat ere bai ta... Gaiñeakuan, ez zeon /etzeon/ ezer hemen inguruan! Ez, gaurko umientzako parkiak eta ez zian /etzian/ izaten garai hartan e! Mendia jun ta ez dakit ba nik, zuhaitzetan gora iyo ta jaitsi ta holakoxe denbora pasa nunbaite, denbora pasa.

- Ta txorro-morro?

- Bai. Hori're bai, baiño behin edade bat ezkeo neskak ez zuen /etzuen/ nahi izaten. Izutu iten zian edo ez dakit ze pasatzen zan.

- Eta neska-mutillek elkarrekin ibiltzen ziñeten ala?

- Bai, bai. Bai, bai.

- Egongo ziran jolas batzuk mutillenenak bakarrik ziranak?

- Bueno pelota eta fubol... Bueno fubolian ibiltzen giñan "Nacional-1" deitzen geniyon karretera hori zanian. Hor fubolian ibiltzen giñan igande askotan. Eta bi kurba tarten zeunden zeuden... baten kurba batetik bestea ez dakit eongo zian berrehun metro edo eongo zian... Eta biyan tartian, ba, ohartzen giñanian kotxia bazetorrela ordun gaiñea oso kotxe gutxi ibiltzen zialakon, gaurko eguneko burrundaik ez zeolakon /etzeolakon/ eta ohartzen giñan bazetorrela kotxen bat eta kurban azaltzeako ya jokoa gelditzen zan eta jarraitu itten genun gero.

- Joe, oingo berdin-berdin e?

- Bai, bai igual-igual. Berdin. Oso... oso igual-iguala.

- Eta errekan eta baiñatzen ziñaten?

- Bai, bai. Hemen Gorga izeneko erreka hori, ba, ordun oaindikan nahiko garbiya etortzen zan. Eta bueno, ura udaran nahiko urritzen, baiño bestela, bai, ondo. Hemen putzu zulok bezela zauden. Batzutan, oso ur azala juten zan, baiño beste tokitan putzu zuloak. Angirak egoten zian. Eta bueno, pues hor ibiltzen giñan angira harrapatzen'e bai ta!

- Eta nola?

- Ba, batzuk tenedorekin... osea ikusten... Osea angira eskukin harrapatzea oso zailla da! Eta bueno, pues nabarmentzen zenunian lokatzetan edo han zeola tenedoria sartu. Eta hue zan...

- Zulo baten harrapatu ta...

- Bai, gehienian lokatzetan bere burua estaltzen zuen ez da? Baiño ikusten bazenun han estali, gorde zala, ba, tenedoriak aprobetxatzen zenun harrapatzeko.

- Eta beste sistematik bai arrantzarako ala?

- Ez. Gu geok holaxe asmatutako zea. Batematek... norbaittek esan zun tenedorekin harrapatzen ziala, eta harekin sayatzen giñan. Ta bueno, pues bat edo bi harrapatzen bagiñitun, ba, bale!

- Ta beste arrairik bazeon?

- Ez, ez.

- Ta karramarrik edo?

- Nik ez nituen /enituen/ ezagutu. Agian egongo zian, baiño ez nitun /enitun/ ezagutu. Ez hemen inguruan. Agian, gorago edo baliteke. Baiño karramarriak ere gaiñera berez oso ur garbiko animalia izan behar du, ta... Nik goatzen naizen garayeako ya Añorgan etxe asko iñak zeuden, eta, badakizu, etxe guzti hoitako komunetako ziñak azkenian horrea etorriko zian. Pentsatzen det /pentsatzet/. Oain ohartzen naiz; orduan, ez.

- Karo.

- Jakiña.

- Ta karo, zenbat eta jende kopuru gehiyo, ba, ordun ta zea gehiyo zetorren, zikiña gehiyo etorriko zan eta... Izango zian karramarrok. Seguru baziala, baiño ez nituen ezagutu nik.

6. Txoriak harrapatzen; kilkerak

- **Erref:** DON-086/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Zomorroak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Txoriei kalte egitea ez zitzaion gustatzen. Biskarekin harrapatutako txori kantariak saltzen zituzten batzuek, baina ordurako debekatuta zegoen. Kilker bila bai, zuloan pixa eginda.</p>

Transkripzioa

- Eta txori billa ta ibiltzen ziñeten? Habia batzen ta?

- Bai, baiño nik nere ez dakit zergatikan ez zitzaidan /etzitzaidan/ behin'e gustatu txoriyari kalte itia. Osea habia ikusten baldin banun, ba, bale, ba, han zegoela, ta batzuk derrigorrez iyo ta bano pues habia muittu ta iten zituen. Ta bueno, zapuztu iten zian, eta han ez zan /etzan/ txoriyaikan

ateatzen. Ta ez dakit zergatikan nik iñor esan gabe nei ez zitzaidan / etzitzaidan/ iruitzen ezer zeaik... ezer probetxukoik bazuenikan horri. Eta nik nere artian, ba, utzi iten niyon.

- Baiña batzuk harrapatu eta jan ez? Iten zituzten txoriyak?

- Bueno, lumatu gabe ta dauden txoriyak eta hola jaten nik ez det /eztet/ iñor ikusi. Nik ikusten nituna zan norbaittek bixka edo kola batekin prestatutako zuhaitz txikiyak prestatzen zittuen, eta han gelditzen zian txoriyak. Ba, bai, batzuk tarin eta holako kantatzen zuen txoriyak baldin bazian, ba, bai, haik kayolan sartu eta saltzeko azkenian. Baiño galezita zeon orduako.

- A bai?

- Bai, bai. Ta bueno, beste batzuk, noski, zartai batian prejittuta bukatuko zuen, pentsatzen det /pentsatset/. Baiño, ez. Ni ez naiz hortan sekula ibilli.

- Eta kilker billa?

- Bueno, bai. Hori noizpait bai. Eta bueno, horko xixtema izaten zan zuloa aurkitzen zenunian, ba, parian jarri ta pixa in.

- Ta atea iten zan.

- Ta atetzen zanian, ba, pote batian edo jarri ta ogi koxkor bat ardo pixkatekin jarri ta mozkortutzen zanian arduan zeakin nunbait orduan izugarrizko kankak ateatzen zitun. Entzuten giñutun ta... Eta irauten zuna irauten zun.

7. Maristetan eskolan I: euskara baztertuta

- **Erref:** DON-086/011
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Antiguan ibili zen eskolan, maristen ikastetxean. Oinez joaten ziren toki guztietara. Kuartela zegoen ikastetxe ondoan. Cara al Sol kantatzen zuten, eta ondoren arrosarioa. Dena erdaraz egiten zuten. Igeldoko bati dotrina euskaraz hartzen zion fraide batek, isilka. Ez zuten jakiten ondokoak euskaraz zekien.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolara nora jun ziñan zu?

- Ni Antiguoko 'Paseo de Eriz', gaurko egunian 'Paseo de Eriz' deitzen zayon 'Colegio de maristas, de hermanos maristas'. Frailiak zian.

- Ba hemendik hara badao oiñez tiradatxo bat...

- Baiño orduan normala zan. Hemendik Antiguoa ta hemendik Donostia jutia normala zan. Ta hemendik Lasarte jutia ta... Gu adibidez, ni gaztetan Hernania ta Usurbillea ta batea ta bestea bizikletaik ez zeon /etzeon/, ez bazeon /ezpazeon/, ba, oiñez jutun giñan. Ta bi aldiz pentsatu gabe gaiñea! Ordun, ba, hamalau urte arte edo egunero-egunero kolegio horta.

- Ta ze oroitzapen dakazu? Hor ibilitako batzuk esan diate nahiko zorrotzak edo zirala edo?

- Aber, gu geuden lekuan ta geuden egoeran, aldamenian guardia zibillan kuartela gendun, gure gaiñian bezela ta handik ikusten ziguten. Guk nola

atsalden adibidez... atsaldekua izaten zan danak patiyuan formatu, eta guardia zibillak beida eoten zian formatzen giñitun, formatzen giñan eta firme jarri ta 'Cara al Sol' kantatu. Hoi atsaldeko... atsaldeko sesiyua hola hasten zan. Geo, barrura sartu eta errosariyua errezatu. Eta bueno, hoi biyak... bi gauzak artian eta beste pixkat zeoze bostetan ya aldeiten genun. Atsaldian, azkenian, ez bagiñan juten'e berdin izango zan. Hola izaten zan.

- Dene erderaz, klaro?

- Derrigorrez. Kaso bat bakarrik ezagutu nun Igeldoko mutil bati dotriña euskeraz hartzen diyoña. Zeatikan gizajoak erderaz traba asko zauzkan nonbaitt, eta aitzayi hori jarri zun ezin zula asmatu erderaz esaten eta dotriña bea apaizakin euskeraz ikasi zuan nunbaitt eta fraile batek euskeraz aparte beai hartzen ziyon. Ixilka bezela, baiño jakiña euskerako asunto hori nik orain azkenengo hamar urteotan ezagutu edo hitz ein det personak ordun alkarrekin eskolan ibiltzen giñanak oain jakin det euskeraz bazekiyela. Orain. Jubilatu eta gero, alkarrekin hizketan hasi ta euskeraz hitz egin diatelako edo hitz bat o beste ta "hik ba al dakik euskera?" ta "bai". Ba, hainbeste urtian ikastolan alkarrekin ibili ta ez genekiun alkarrekin euskeraz bagenekiunikan. Ta bueno, hain izkutuan eoten zan asunto hori ez genikiula bataz beste...

- Eta dotriña zuk euskeraz ikasi zenun ala...?

- Ez, erderaz. Bertan.

- Dotriña han bertan?

- Bertan. Fraile eskola zanez, ba, bertan. Erderaz.

8. Maristetan eskolan II: zigorrak

- **Erref:** DON-086/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Maristetan ez du zigor asko gogoratzen. Makilarekin jotzen zuten noizean behin... 14 urte arte ibili zen han. Bere kontura jarraitu zuen ikasten, akademiatan; batxilergoko gaiak.</p>

Transkripzioa

- Eta zigorrik eta jartzen zuten?

- Bueno, ez. Nere iritziako ez. Baten bati ikusi izandu niyon zeakin reglakin hola bihetz muturretan hola behetik gora jarriazi eta reglakin jotzen ziyon. Eta noizpaitte paetan kontra jarri re bai ta holako gauzak bai, baiño ez zan /etzan/ izandu nik ikusita behintzat ez zan /etzan/ hain gogorra izan. Noski, normalmente ondo portatuta. Baten bat oker bazebillen edo ez baziñan beren gogokoa edo ba bai. Zalapartasua edo eztakit. Ez nun /enun/ ikusi nik hortaño zeaikan. Hemen zenbait telenobelatan ta ikusten dan bezela ta. Bueno, ba, gertatuko zian noizpaitt gertatuko zian, baiño nere kasuan ez det /eztet/ eze asko ikusi.

- Eta esan dezu hamalau urtera arte?

- Bai.

- Ibili ziñala han. Eta gero, ze...

- Ba ez nun /enun/ jarraitu nahi izandu estudiantzen, eta gero ikasketak jarraitu nitun aparte libre bezela osea akademiatarra ta junez. Hor Antiguon bertan bazeon bat Juan de Garaiko kalia Joto deitzen zioten profesore bat aparte klase partikularrak ematen zittuna. Eta bueno, pues, illunarretan ta hasian bi-hiru aldiz junez horrela jarraitu in nun ikasten-ikasten hola jarraitu nun. Urte batzutan.

- Ta harek ze erakusten zun? Ze...

- Ba, nolabaitte bigarren gaurko bigarren hizkuntza, hezkuntzako gaiak esango genuke. Ordun zan batxiller deitzen ziotenak. Eta bueno, horko gaiak, ba, aurreneko hezkuntza ordungo aurreneko hezkuntzan ikasten ez zian /etzian/ gauzak ya beste nibel batekuak. Matematikak eta frantses pixkat eta holako zea batzuk.

9. Itaurrean, umetan; segan, aitzurrean

- **Erref:** DON-086/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:23:02. **Bukatu:** 00:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Umetako lanak baserrian: ganaduaren aurrean ibiltzea. 14 urterako segan ikasten zuten, baita aitzurrean ere. Ganadua ukuiluan egoten zen, eta jatekoa etxera ekartzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Bueno, oso korrietia izaten zan mutil koskorretan, oso gaztia zanian, behin hamar urte edo lehenen re bai, goldea eta holako tresnakin lurra zeatzen ai zeanian, prestatzen ai zeanian, ganauan aurriak aitaurrean edo itaurrean edo akuillua hartu eta ganauak nolabaitte zuzen eamaten saiatu. Ez zan /etzan/ beti hala izaten zeatik beste aldea beira re askotan ibiltzen giñan, eta ganauak askotan utzi ezkeo bere [alderta] juten zian. Atzetik erritan ibiltzen zian, baño... Hori izaten zan gure eginkizuna txiki-txikitatikan. Ta bueno, behin dozena bat urte, hamahiru bat dituzunian, ba, bueno... sega zorroztu ta segan pixkat erakutsi osaban batek eta hartan ere hasi nitzan. Eta bueno, ba, geo atxurrakin ere hemen zerbait jorratu bihar bazan jorratu ere bai ta. Ez zan /etzan/ oso nere gustokua ta ahal nun gutxina iten nun, baña in bihar zanian iñ in bihar izaten zan.

- Eta animalia, ganadua zaindu ta hori?

- Ez, ganadua ez zan /etzan/, ez zan/etzan/ zabalik eoten kanpuan. Osea beti ikuilluan eoten zan, eta ganajana ebaki ta gurpin kargatu eta etxea ekartzen zan. Ta handikan partitu. Ganadua oso [...] uda eateko kanpuan aska bat zeon, eta orduntxe libratu ta etxen inguruan askan batea bialdu ta han eaten zuen. Eta hola. Bestela ez zan /etzan/ ganadua libre ibiltzen.

10. Harakin ikasten; soldadutza Loiolan

- **Erref:** DON-086/017
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:30:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>17 bat urterekin harakin ikasten hasi zen, San Martin azokako postu batean: Etxezortu. 19rekin soldadu joan zen, boluntario; lege berri bat atera zuten. Ifniko gerrara eraman zituzten beste batzuek, Afrikara. Loiolako kuartelera joaten zen bera. Morse ikasi zuen.</p>

11. Garai bateko irratiak; 'Pirenaica'

- **Erref:** DON-086/019
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:33:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Politika eta Franco
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Lehengo irratiak nolakoak ziren. Sintonizatzea zaila zen.
Pirenaica hartu nahian ibiltzen ziren. Irrati kateak. Parteak.</p>

12. Mitxelin lantegian I: harategia

- **Erref:** DON-086/022
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:34:48. **Bukatu:** 00:39:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzatik bueltan harategian jarraitu zuen pixka batean. Mitxelin lantegiko harategian hasi zen lanean, Lasarten. Egiten zituen lanak. Txekorrak hiltegiara eramaten zituen, eta bertan hil. Dozena bat emakume egoten ziren gibelaren zain.</p>

13. Mitxelin lantegian II: ekonomatoa

- **Erref:** DON-086/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:39:18. **Bukatu:** 00:41:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak
- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mitxelín lantegiko harategian lanean. Ekonomatoa eta kooperatiba. Francoren gobernuak jarritako legea. 1967an aldatu zuten legea.

14. Mitxelín lantegian III: destajora lanean

- **Erref:** DON-086/024
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:41:13. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mitxelín lantegian "destajoan" hasi zen lanean, makinan. Eztabaidak izaten ziren langileen artean, horren kontura: zenbat lan egin. Batzuek senar-emazteak zeuden lanean.

15. Mitxegin lantegian IV: Frantziara lanera

- **Erref:** DON-086/025
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:43:41. **Bukatu:** 00:46:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lantegia handitu zenean, lanez aldatzeko aukera izan zuen. Azterketak egin zituen, eta Frantziara joateko aukera eman zioten. Lantegiko nagusia frantsesa zen. 1967an joan zen.

16. Irubidera eta Azken Portura dantzara

- **Erref:** DON-086/028
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:47:57. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Vespa bat erosi zuen 22 urterekin. "El que tiene Vespa tiene neska". Neskatan egiteko tokiak. Irubidera dantzara. Benantzio soinu-jotzailea. Aietara ere joaten ziren, Azken Portura; hantxe ezagutu zuen emaztea izango zena. Dantza lotua libre zen; Zubietan apaizak ez zuen uzten.</p>

17. Kongregazioak eta mezak

- **Erref:** DON-086/030
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Luistarren kongregazioan ibili zen, baina debozio handi gabe. Ahaztu egiten zitzaion joatea. Matiara joaten ziren elizara, zahar egoitzako kapilara.

Lehenbailehen libratzen saiatzen ziren, dantzara joateko.

18. Añorgako festak, mundialak

- **Erref:** DON-086/031
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Añorgako festak mundialak ziren. Herri-kirolak. Aizkolari onak ikusteko ordaindu egin behar zen. Ez da zezenen zalea. Neska laguntza.</p>

19. Matiako apaiza; frantziskotarren sermoiak

- **Erref:** DON-086/032
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:59:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Matia zahar egoitzako apaiza zaharra zen, eta nahiko lan izaten zuen meza emateko. Frantziskotarren sermoi beldurgarriak; jakinaren gainean gezurrak esaten zituzten, pulpitotik garrasika. Horrek beraiengan zuen eragina.

20. Festetara oinez eta bizikletan

- **Erref:** DON-086/034
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:59:33. **Bukatu:** 01:01:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>San Sebastian eguna; ez ziren Donostiara asko joaten. Gaurko gazteen jokaera ez du ulertzen. Beraien parranda modua diferentea zen. Bizikletan joaten ziren toki berriak ikustera. Hernanira oinez.</p>

21. Saltzaileak eta ijitoak

- **Erref:** DON-086/035
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:01:43. **Bukatu:** 01:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Etkez etxe ibiltzen ziren saltzaileak. Txatarra biltzaileak eta ijitoak. Hernanin eta Lasarten baziren ijito euskaldunak. Lehen ere izaten ziren lapurretak. Atea irekita egoten zen baserrietan.

22. Faroleroak, serenoak eta guardak

- **Erref:** DON-086/038
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Faroleroak eta gasezko farolak. Serenoak kalean eta guardak baserri inguruetan. Errazionamendu garaian, patata entregatu behar izaten zuten; konfiskatuta. Nora eramaten zuten.

23. Estraperloko ogia eta emakume nafarrak

- **Erref:** DON-086/039
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:07:38. **Bukatu:** 01:11:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperloa: Plazaolako trenean emakumeak etortzen ziren ogiarekin. Añorga Txikin jaisten ziren batzuetan, guardia zibilek ez harrapatzeko. Behin emakume bat belar pila batean sartu zen. Nafarroan libre zen ogia egitea, Gipuzkoan errotak itxita zeuden.

Transkripzioa

-Eta estraperlorik ero... ezautu dezu?

-Bai, e, estraperlo hola izen horrekin, bi motatakua: bat, Naparro aldetik etortzen zian Plazaolako trenian emakume batzuk ogiyakin. Zeatik hemen ematen zuen ogiya ba... iriña eukiko zun, baiño beste gauza gehiyokin ere uste det osatzen zuela, eta halakua zan ogiya hua jateko. Gaurko egunian ez litzake jango, baiño ordun beste erremeiyoik etzeon [ez zegoen]. Eta Plazaolako tren hortan etortzen zian; Plazaolako tren hoi da Leizarandik barrena zetorren trena, e, ikatzakin ibiltzen zana, kea botatzen zun. Eta aurrena Donostiaino etortzen zian, beren zaku... bakoitzak zaku pare bat ogikin, ta saldu iten zuen, baiño gero guardia zibilak hasi zian ba... kentzen, detenittu, zea, fitxatu ta ogiya kendu ta... Gero hasi zian ba, e, Añorga Txikin jeisten eta geo hemen trenbidez oinez juten zian, eta hola. Eta batian ba, e... ez takit nun jetsi zian, Añorga Txikin jetsiko zian, baiño guardia zibilak`e geo ta geo gertugotik segitzen zioten, ta batian e... hoietako emakume... bakoitzak ahal zun tokitikan alde iten zun ta bat sartu zitzaigun, etxeko... [etxeordean] belarra gorde, gorde... pilla batian sartu zan azpian. Ta sarjentua etorri, ta emakumea hemen sartu zalako, ta gure amak ezetz. Harek baietz. Ta ezetz. Ta baietz. Ta ezetz. Eta bueno, ba miatu ingo zula etxea. Ba miazteko. Ta guk bageñekiun emakumea nun gorde zan, eta harek, gañea, entzun ingo zun segurasko diskusiya. Ta bayoneta sartu fusillai ta belarretan zulatzen, eta ez takit emakumia noaiño sartua eongo zan, etzun [ez zuen] ikuittu nonbaitt. Eta azkenian kabreatuta alde intzun [egin zuen] guardia zibillak, eta emakume hari handik puska batea abixatu geniyon: "Aizu, alde in due ta atea zaitez". Eta bueno, ba hemengo ogiya, jode, zan ba nola esango (d)izut pa? Kapritxo bat bezela ogiya txuri-txuriya ta... iriñakin indako ogiya zan hua. Ta Naparroan ez takit nun ingo zuen, Lekunberrin o nun ingo zuen ogiyori. Han libre zan, Naparron libre zeon ogiya hori itia; hemen, berriz, erosi bihar zenun hemengo e...

-Errotak itxita zeuden?

-Bai, bai, bai. Dena, joe.

-Prezintatuta?

-Bai, bai, prezintatuta zeuden. Ezintzan [ezin zan]...

-Bestela hemen errotarik bazeon inguru hontan?

-E, errota? Martxan zeonikan nik ez nun hemen ezautu. Tolosalde hortan bai, nik aman etxetikan astuan gaiñian eaman izandu det eee iriña iteko gariya ta artoa ere bai. Baiña hemen... hemen ez. Hemen gariyaik etzan [ez zan] iten, gaiñea. Ezintzan [ezin zan]. Eztet [ez det] uste aurrea ateako zanikan, batez ere klimangatik. Tolosalde hortan bai, hor hor lortzen zan gariya, baiño hemen ez. Ta gero txoriya, erruz. Txoriya erruz zan gerra ondoren ba bueno, ehiztari gutxi ta bat eta beste, pues... ordun barra-barra zan txoriya. Klase guzitakua.

24. Mugaz bestaldeko estraperloa

- **Erref:** DON-086/040
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:11:02. **Bukatu:** 01:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Beste estraperlo mota bat. Mugaz bestaldetik ezkutuan ekartzen zutena: piezak, puntillak, kristalezko galtzerdiak... Mendiz ekartzen zituzten gauzak. Elizondo inguruko jendea zen. Muga itxita zegoen.

Transkripzioa

-Esan dezu bi estraperlo mota ezautu zenitula...

-A, bai. Bestia zan e, bueno, zeatik zetorrena: fronteratikan honuntza zetorrena. E, pieza... zenbait pieza makinariantzako falta zian piezak eta beste gauza asko hemen etzeudenak [ez zeudenak]. E, eztakit ba, puntillak edo gauza... eztakit, eztakit, e... agian galtzerdik, ordun kristalezko galtzerdi deitzen zizaiyotena, nailonezkuak, eta zenbait gauza ba merkego edo hemen etzeudenak [ez zeudenak]. Ta bueno, hori... zenbait persona ezautu nun nik hortan ibiltzen zana, eta bueno, pues...

-Nola ekartzen zuten...?

-Mendiz. Hor, betiko zea, e... mugalari o deitzen ziotenak, zeak, Elizondo ta alderdi hortako jendia hortatik bizi zan. E, mendiz, azkenian. Hombre, zenbait... aber, e, frontera itxita zeon. Kamioietan ta kotxetan ezintzan [ezin zan], ezintzenun [ezin zenun], zeatik etzan [ez zan]... o sea oso... bisadu berezin bat o pasaporte berezin bat bihar zenun, inork guk bezelakok lortu ezin zezakena, frontera pasatzeko. Frontera pasatzen zan, pero batzuk bakarrik, e. Eta itsasontzitan akaso? Itsasontzitik itsasontzia eginda itxasuan? Bestela, dena menditikan.

25. Donostian saltzeko ordaindu beharra

- **Erref:** DON-086/042
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:12:38. **Bukatu:** 01:14:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Arbitrios, Benta Berri baino lehenago: zerga ordaindu behar zuten zaldi-karroan zeramatenarengatik. Postuarengatik ere ordaindu egin behar zen, plazan. Fielato. Kobratzaileak, grisez jantzita.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com